

MAIXA EIZMENDI (SAGARDOGILEA)

## “Uste genuena baino sagardo hobeia etorri da, edan errexa”

■ Azken urteetan, jende asko Gasteiztik hasi da ■ Hernaniarrak, astez gehienak.



Maixa Eizmendi txotxetik basoa betetzen.

■ **KRONIKA:** Zer moduzko sagardoa dator aurten?

MAIXA: Ona. Kolorez eta saborez uste zena baino hobeia. Errez edateko sagardoak ematen dute. Aurten kanpoko sagarra erabili behar izan dugu, eta sagardoa ilunxeago aterako zela uste genuen.

■ **Txotxean zenbat sagardo edaten da.**

Txotxean % 5 edo % 8 inguru edaten da. Gainerakoa botiletan saltzen dugu; eta oso motel-dutako sagardoa -txotxetik as-

ko tiratakooa- binagretarako, Errioxa eta Asturiasera.

■ **Kanpainan zehar nongo jendea ibiltzen da?**

Gehiena Gipuzkoako jendea. Gainontzean Gasteiztik hasi da jende asko etortzen. Naparrak eta Bizkaitarrak beti ibili izan dira, eta iparraldekoak Oiar-tzun aldera joaten dira gehiago.

■ **Eta hernaniarrak?**

Koadrila txikiak aste barruan etortzen dira; asteburuetan koadrila haundiak eta gazteak.

■ **Sagardotegi boladan jendearekin iskanbilak izaten omen dira. Zer iritzi duzu?**

Sagardotegian bertan oso jaleo gutxi izaten da; oso noizbehinka. Kalekoak erremedio zaila du, koadrila haundiak etortzen dira-eta. Hala ere txarrak 7-8 larunbat bakarrik izaten direla uste dut.

■ **‘Behi eroen’ gaitzak izango al du sagardotegietan ondoriorik?**

Ez dut bildurrik. Hemendik aurrera haragia askoz kontrolatuago etorriko da-eta. Dagoeneko, *testak* paseak dituztela dioten txaparekin etortzen zaigu.

■ **Osakidetzak gero eta gehiago exigitzen omen du. Horrek zer dakarki zuentzat?**

Bai exigentzia haundiak dituzte: toleara ezin da bodegan eduki, enboteiladora aparte eduki behar da, iturriak pedalekin... sagardotegi gehienak obretan ari dira; txikientzat inbertsio haundia suposatzen du.


■ **Zer etorkizun dute sagardoak eta sagardotegiek?**

Sagardoa badirudi lehen baino gehiago edaten dela. Sagardotegietan, bestalde, jende kopuru berdintsua dabil urteetan. □

BITERIN ERAKUSKETA

## Euskal Herriko antzineko postalak ikusgai

■ Urtarrilaren 31 arte ■ Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara ■ Ortzadar kultur elkateak jarri du.



Amona gitarra jotzen: "Iparragirre abila dela..."

URUMEA erriean arropa garbitzen, gizonezkoak amu eginean, familia sutondoan, Hondarrabiko alardea, euritan guardasolapean erreztatzen, umekozkorra jolasean... garai

bateko Euskal Herriaren irudi ikusgarriak jarri ditu Iruñako Ortzadar kultur elkarteak. Erakusketa aste egunez egongo da zabalik: arratsaldeko seietaatik zortziak arte. □

JUBILATU ETXEA

## Hitzaldia, gaur: 'min fisiko eta psikologikoak'

■ Arantxa Martin psikologoak emango du ■ Arratsaldeko 18:00etan jubilatutako etxean.

ASTE BURUKO ZINEA

## Jovenes prodigiosos

■ Ostiralean: 22:30etan ■ Larunbatean: 19:30 eta 22:30etan ■ Igandean: 19:30etan.

## Hernaniko Pala Txapelketa Otsailaren 3an hasiko da

■ Izena urtarrilaren 28a baino lehen eman ■ Partiduak kiroldegiko frontoian jokatuko dira, larunbat arratsaldetan.

PELOTA Elkarrekin eta Kirol Patronatuak antolatuta, pala txapelketa izaten da Hernanin, pelota *mazizarekin*. Aurtengoa antolatzen den zazpigarren aldia da. Lehen partidua otsailaren 3an izango da, eta finala, berriz, apirilaren 7an. Lau bikoteko taldeak egingo dituzte, eta elkarren kontra *ligilla* jokatu beharko dute; onenek jokatuko dituzte gero final laurden, finalurreko... apuntatzen direnen arabera.

### JOKATZEKO BI BALDINTZA

Hernanin jaioa edo bertan bizitzea derrigorrezkoa da jokatzeke; eta 18 urte baino gehiago izatea ere bai. Bikoteek suplentea ere eduki lezakete; baldintza berdinak betetzen dituenak, noski. Partiduak kiroldegian jokatuko dira, eta ia seguru larunbat arratsaldetan. Izena emateko edo zerbait gehiago jakiteko 656-793990 telefonora deitu (Rufino). □

**brintza**

BRINTZA, S.L.

Juan de Urbieta 15  
Tel. 943 33 12 67  
Faxa.: 943 33 08 92  
20.120 HERNANI



LAN AHOLKULARITZA  
AHOLKULARITZA FISKALA  
ASEGURUAK, INBERTSIOAK

**IXTASPE**  
ARRANDEGIA  
Antziola 5 - Tel. 943 330 365  
20120 HERNANI

CATALANA OCCIDENTE Aseguruak

**Bautista Biurrarena Etxegoien**

Kardaberaz 40 -Behea  
Tel. 943 33 24 40  
Faxa 943 556602  
Mobila 610 29 27 01  
20120 HERNANI

HELDUEN HEZKUNTZA (EPA)

## Bigarren urte erdirako matrikula astelehenean zabalduko da

■ Otsailaren 2ra artekoa da izena emateko epea ■ Ikastaroak debalde dira ■ Astigarraga, Urnieta, Andoain eta Hernaniren artean 200 ikasle daude.

HERNANIKO Helduen Hezkuntzak lehenengo urte erdia bukatu eta bigarregorako matrikula zabaldu du. Jaur-laritzak ordaindutako zerbitzua da eta matrikula dohanik da. Zentruak eskualdekoa da (Astigarraga, Urnieta, Andoain eta Hernani). Orain arteko ikastaroetan, 200 ikasle inguru ibili dira eta gehienak hernaniarrak.

### ESKAINZA

- Idazten eta irakurtzen erakutsi.
- Bigarren Hezkuntzako Graduatua.
- Unibertsitatera sartzeko ikastaroa.
- Seme-alabei eskolako lanak egiten laguntzeko prestatu.
- Euskara eta euskal kultura.
- Informatika

### INFORMATIKAKO

**IKASTAROAK GEHIENA**  
"Informatika dago modan eta informatika ikastaroak izaten du jende gehiena" dio irakasle batek. "Informatika eta gero Bigarren Hezkuntzako Graduatua". Ikastaroak goiz eta arratsalde izaten dira.

Helduen Hezkuntzako zentrua Antziola auzoan dago, 62 zenbakian. ☎ 943-335318 □

## TABERNETAKO BERTSOLARI TXAPELKETA



Xapo, Xanta, Barrenetxea eta Oxan iazko txapelketan.

## Txapeldunak txapel bila

BOST txapeldunetako batek jantziko du zazpigarren Tabernetako Txapelketako txapela. Lehenengo txapeldunak, *Yurre* igeldoarrak azkenean ez du kantatuko.

**FAVORITO GARBIRIK EZ**  
Zerain, Tolosa, Txuria, Este eta Olanok berea ematen badute, epai-leek erabakitzen lanak. Garin tabernan 22:30ak aldera.

## ■ HISTORIAN BARRENA

# 1944an Manuel Larburu hernaniarra hil zuten konzentrazio kanpo batean

■ Alemanek gaurko egunez eraman zuten 'Beakorte'ko semea Paristik Buchen-



Manuel Larburu

**BIGARREN** Gerra Mundialeko oiartzunak Hernanin ez dira erabat itzali. Jon Zabalek urteak daramazki bere senitartekoaren arrasto bila eta azkenean atera du.

**ARAGOITIK URRUÑARA**  
Manuel Larburu Francoren bandoan gerra egitea egokitu zitzaion. Aragoiko frentean ze-goela beste hernaniar batek gorria zela salatu zuen.

■ Manuel Larburuena orain artean isilean pasaden kontua da.

■ Hernanin ez du beretaz inork hitz egin izan. Eta Iparraldean ez dute bere izenik jarri Gerra hildakoen monumentuetan.

Manuelek bazekien bere lehengusu bat salaketa beragatik hil berria zutela. Zer zetorkion ikusita desertatzea erabaki zuen. Aurrena Kataluniara jo zuen eta handik Urruñara.

**RED KOMETAN**  
Manuel Larburu, Florentino Goikoetxea koinatuarekin egon zen *Red Cometa*n, zenbait dokumentuetan azaltzen denez. *Red Cometa* Alema-

nen eskuetan eroritako abiadore aliatuak Espainiara pasatzen zituen. Beakorteko semeak, halare, ez zuen askotarako denborik izan.

### MORROIAK SALATU

Bidegain-Berri baserria zen Urruñan operazio hauetako gordeleketako bat. Ondoko baserriko morroiak, ordea, salatu egin zituen, eta harrapatu (1943ko urtarrila). Florentino, suertez, bezperan aldegin zen. Alemanek Larburu Compiègnen konzentrazio kanpoan sartu zuten, Frantzia.

Zabaletak lanak izan ditu hortik aurrerako datuak biltzen. Dakiguna da San Sebastian bezperan (1944an) konzentrazio kanpo batera (Buchenwald) eraman zutela. Otsailean, beste batera (Flossenbürg) aldatu zuten. Eta Martxoaz geroztik Manuelen arrastoa erabat galdua dago. Hitlerren poliziak, *Gestapok* konzentrazio zelai hartako informazio guztia erre egin zuen. Ez, ordea, Manuel Larburu hernaniarraren oroitzapena. □

## ■ HITZ BITAN



Erakusketako lan multzo bat.

### ✓ ERAKUSKETA

**Postal erakusketa Txema tabernan.** Loreak, irudiak eta koloreekin jokaturia *Olga Izquierdo* nafarrak postal erakusketara polita osatu du.

### ✓ BERTSOPAPERAK

**'Bertso paper bilketa'.** Andoaingo Irunberri kultur taldeak bertso paper bilketa antolatu du eskualdean. Hiru maila egin dituzte: 12 urtetik beherakoak; 13-17 bitartekoak; eta 18 urtetik gorakoak. Gaia eta neurria libre. Bertso sorta -bere datu eta guzti- Garin tabernan utzi.

### ✓ ESKOLARTEKO KIROLA

**Atletismo frogak datorren larunbatean.** Antziolako pistan izango dira Benjamin eta Alebinentzat. Ikastetxe guztietatik joango dira; larunbatean, goizeko 10:30etan.

**Langileko Kadeteek futbol partidua dute Donostian, bihar.** Aldapetarrak taldearen kontra ari behar dute. Gainontzean ez da kirol eskolarrik, San Sebastian eguna izaki atsedean hartuko baitute gazteek.

### IRRATIAK

(F.M. 99.2): 11:30etan: Miel Guri: ageari (biharamona) buruz hizketan. 11:40etan: Tabernetako Txapelkeri buruz *Txuriarekin* hizketan. 12:20etan: Joxe Zuza Mendiriz-Mendiko azokaren inguruan.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093  
►Udaltzaingoa: 943 333288  
►DYA: 943 464622  
►Autobusak: 943 556662  
►Anbulatorioa: 943 557750

#### ✚ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes Etxeberri ☎ 943 557738  
►Gauzez: Ansa Andoain, Ondarreta ☎ 943 591302

[www.hkronika.com](http://www.hkronika.com)

# Kronika interneten

### IRAGARKI MERKEAK

■ Hernaniko jatetxe batean sukaldaria behar dugu.

☎ 943. 33 02 91

■ *Yamaha Neos* izeneko motoa salgai: ☎ 679-68 04 73